



**kontsumoBIDE**


KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

Eusko Jaurlaritzako Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

PERTSONA  
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





**kontsumoBIDE**

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

# Aurkibidea

## 1. Sarrera ..... 3

## 2. Informazioa ..... 5

### 2.1. Argitalpenak ..... 5

2.1.1. Liburuxkak eta informazio-orriak ... 6

2.1.2. Aldizkariak ..... 7

2.1.3. Ikasmaterialak ..... 8

2.1.4. Azterlanak ..... 8

2.1.5. Kontsumobideren 2014ko memoria..... 8

### 2.2. Sentsibilizazioa ..... 8

2.2.1. Kontsumobide hedatzeko kanpaina ..... 9

2.2.2. Kontsumobideren agerpenak komunikabideetan ..... 9

### 2.3. Kontsumobide Sarean ..... 10

2.3.1. Webgunea ..... 10

2.3.2. Bloga eta Sare Sozialak ..... 11

2.3.3. Kontsumobide APP ..... 11

## 3. Prestakuntza ..... 12

3.1. Kontsumorako prestakuntza Kontsumobideko zentroetan ..... 12

3.2. Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan ..... 14

3.3. Kontsumorako prestakuntza adinekoentzat ..... 16

3.4. Kontsumo-arloko profesionalentzako prestakuntza ..... 17

## 4. Gatazkak konpontzea ..... 18

4.1. Kontsumoko kontsultak Euskadin ..... 18

4.2. Kontsumoko erreklamazioak Euskadin ..... 20

4.2.1. Kontsumobide ..... 23

4.2.2. Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-Bulegoak (KIUB) ..... 26

4.2.3. Kontsumitzaileen elkarteak ..... 28

4.3. Zehapen-espeditentak ..... 30

4.4. Kontsumoko Arbitrajea ..... 32

4.4.1. Enpresen atxikipena arbitrajeari ..... 32

4.4.2. Arbitraje-eskaerak ..... 36

## 5. Merkatuaren kontrola ..... 38

5.1. Ikuskatzeko eta kontrolatzeko kanpainak ..... 38

5.2. SOIVREekin koordinatutako ikuskapen-jarduerak ..... 39

5.3. Elikagaiak ez diren produktuen segurtasunaren kontrola ..... 39

5.4. Ikuskatze-jarduerak ..... 40

## 6. Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzan ..... 42

6.1. Babes ekonomikoa emateko programa ..... 42

6.1.1. Toki-erakundeak (KIUB) ..... 42

6.1.2. Kontsumitzaileen elkarteak ..... 45

6.2. Kontsumoko Aholku Batzordea ..... 46

6.3. AECOSAN eta gainerako autonomia-erkidegoak ..... 47

## Eranskinak (harremanetarako datuak) ..... 48

I. Eranskina: Kontsumobide ..... 48

II. Eranskina: Kontsumitzaileen informaziorako eta arretarako zentroak (KIAZ sarea) ..... 49



# 1. Sarrera

**K**ontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa 159/2011 Dekretuaren bidez onartu zen 2011ko uztailaren 12an, eta beraz, 4 urte eta erdi pasa dira harrezkero. Nolanahi ere, epe horretan, institutuak beti izan du kontuan zer helbururekin sortu zen.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikitako erakunde autonomoa da, eta haren **helburua kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzearen eta babestearen arloan Eusko Jaurlaritzaren politikak zehaztea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea da.**

Loturak 'Ezagutu Kontsumobide':

- ▶ [Helburuak eta funtzioak](#)
- ▶ [Kontsumobideren 2014-2018 Plan Estrategikoa](#)
- ▶ [Kontsumobiden euskararen erabilera normalizatzeko berariazko plana \(2013-2017\)](#)
- ▶ [Kontsumobideren egitura](#)
- ▶ [Harremanetarako datuak](#)
- ▶ [Memoriak](#)

Hau du xede memoria honek: Kontsumoko Euskal Institutuak 2015. urtearen joanean kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzearen eta babestearen arloan egindako jardun eta jarduera garrantzitsuenak eta nabarmenenak euskal herritarrei eta gure erakundekoak ez diren beste profesional batzuei jakinaraztea. Beste modu batera esanda, dokumentu honen helburua ez da Kontsumobidek aipatutako epe horretan gauzatutako jarduera guztiak zehatz-mehatz bilduko dituen laburpena izatea, baizik eta aipagarritzat hartutako jardueren berri ematea.

Dokumentu honetako informazioa **5 ataletan** banatu dugu:

- ▶ Informazioa
- ▶ Prestakuntza
- ▶ Gatazken konponbidea
- ▶ Merkatuaren kontrola
- ▶ Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzatza

'**Informazioa**' eta '**Prestakuntza**' ataletan Plangintza, Azterketa, Informazio eta Prestakuntzarako Unitatearen bidez gauzatutako jarduera adieraziko dugu batez ere. Informazioari eta prestakuntzari dagokionez, herritarrak beren **eskubide eta betebeharrei** buruz **kontzientziatu eta hezteko** ezinbesteko zereginak dira, modu kritiko, kontziente eta arduratsuan jardun dezaten produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko garaian. Ikastaroak, konferentziak, hezkuntza-jarduerak, komunikabideak, gizarte-sareak, web-orriak, bertako zein kanpoko argitalpenak... Gaur egungo kontsumitzaileak zein etorkizunekoak informatzeko eta hezteko eskura dituen bitarteko guztiak erabili ditu Kontsumobidek.

'**Gatazken konponbidea**' atalean, erreklamazioetarako, Bitartekaritzarako eta Arbitrajerako Unitatearen bidez gauzatutako jarduerak biltzen dira. Kontsumoarekin zerikusia duten arazoei irtenbidea emateko kontsumitzaileek erabilitako baliabide guztiak hartzen ditu bere baitan: kontsultak, erreklamazioak, zehapen-espeditenteak, arbitraje-eskaerak...

'**Merkatuaren kontrola**' atala, berriz, Merkatuaren Ikuskaritza eta Kontrolerako Unitatearen bidez, batik bat, kontsumitzaileen eskura dauden produktuek eta zerbitzuek indarreko legerian eskatutako baldintza guztiak (etiketei, informazioari eta segurtasunari dagokienez) betetzen dituztela egiaztatzeko gauzatutako jarduera guztiei buruzkoa da.

'**Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzatza**' atalean, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoei (KIUB) eta kontsumitzaileen elkarteei (KE) emandako laguntza ekonomikoei buruzko informazioa adierazi dugu, bai eta beste erakunde batzuekiko (Kontsumoko Kontsulta Batzordea, AECOSAN, beste autonomia-erkidego batzuk...) harremanei buruzko informazioa ere.

Eta azkenik, bi **eranskinetan** biltzen dira **Kontsumobideren harremanetarako datuak** (I. eranskina), bai eta Euskadiko kontsumitzailearen informaziorako eta arretarako zentroen zerrenda ere (KIAZ sarea -Kontsumobidek koordinatutakoa-): **KIUB** eta **Kontsumitzaileen elkarteak** (II. eranskina).

## 2. Informazioa

2015. urtearen joanean, Kontsumobidek informazioaren alorrean egin zituen jarduerak ekimen hauen bidez gauzatu ziren:

- ▶ Argitalpenak
- ▶ Sentsibilizazioa
- ▶ Kontsumobide sarean

### 2.1. Argitalpenak

Kontsumobideren lehentasuneko helburu bat da kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zabaltzen zaien informazioa bultzatzea, eta, horretarako, **monografiak, liburuxkak, gidaliburuak eta kontsumo-gaiei buruzko askotariko materialak** erabiltzen dira.

Loturak:

- ▶ [Liburuxkak eta informazio-orriak](#)
- ▶ [Aldizkariak](#)
- ▶ [Azterlanak](#)
- ▶ [Memoriak](#)





## 2.1.1. Liburuxkak eta informazio-orriak

2015. urtean liburuxka eta informazio-orri hauek argitaratu eta zabaldu dira:



[Zerbitzuen Katalogoa](#)



[Arrainak eta itsaskiak:  
etiketak](#)



[Ibilgailuak konpontzeko tailerrak](#)



[Zaharkitze programatua: 5 aholku  
baliagarriak bere ondorioak murrizteko](#)



[Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen  
hizkuntza eskubideak:  
eskubideak bermatuz, zerbitzua hobetu](#)



[Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen  
hizkuntza eskubideak: 123/2008 Dekretua](#)

## 2.1.2. Aldizkariak

Kontsumobidek kontsumoarekin zerikusia duten gaiei buruzko aldizkari hauek egin eta argitaratzen jarraitu du:

► **Kontsumobide Aldizkaria:** 2015ean 3 ale argitaratu dira. Horietan guztietan kontsumoari buruzko artikulua, gaurkotasun-albisteak, kontsultak, elkarrizketak... aurkitu ditzakezu. Aldizkariak Eusko Jaurlaritzako langileei zein kontsumoari buruzko profesionaleri zabaldu dira.

- **23. zenbakia:** Bertako eta garaiko produktua
- **24. zenbakia:** Zaharkitze programatua
- **25. zenbakia:** Erosketa sareak

► Lotura: [Kontsumobide Aldizkaria](#)



► **“Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan” aldizkaria:** 2015ean **10. zenbakia** argitaratu da, eta bertan 2014-2015 ikasturtean prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten ikastetxeek bidalitako artikulua, argazkiak eta ekarpenak jasotzen dira. Programan parte hartu duten ikastetxeetan banatu da aldizkaria.

► Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan’ aldizkaria](#)



► **“Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan”:** 2015ean **9. zenbakia** argitaratu da; bertan, prestakuntza-programan parte hartu duten EAEko adineko pertsonen zentroetan gauzatutako prestakuntza-programaren datuak jasotzen dira. Era berean, kontsumoarekin lotutako gaur egungo gaietan oinarritutako artikulua agertzen dira.

► Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan’ aldizkaria](#)



## 2.1.3. Ikasmaterialak

2015. urtean, kontsumoari buruzko **bi hezkuntza-material** berri argitaratu dira **ingelesez**:

- ▶ ['Healthy diet and nutrition labels'](#)
- ▶ ['Advertising. Bring out your critical side'](#)



## 2.1.4. Azterlanak

2015. urtean, kontsumoari buruzko 3 prestakuntza-zentroen bidez, haietako erabiltzaileen artean **4 inkesta** egin dira:

- ▶ **Azterlana 'Adinekoak eta teknologia berriak: Telefonia mugikorra'** (2015eko abendua).
- ▶ **Azterlana 'Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak'** (2015eko iraila).
- ▶ **Azterlana "Telefono bidezko zerbitzuen kontratazioa"** (2015eko uztaila).
- ▶ **Azterlana "Publizitatea"** (2015eko apirila).

Inkesta horietako emaitzak txosten banatan bildu ditugu.

- ▶ Lotura: [Azterlanak](#)

## 2.1.5. Kontsumobideren 2014ko memoria

2015. urtean argitaratu da [Kontsumobideren 2014ko memoria](#).





## 2.2. Sentsibilizazioa

### 2.2.1. Kontsumobide hedatzeko kanpaina

2015ean, Kontsumobidek **dibulgazio kanpaina** abiarazi zuen **irratian**, kontsumitzaileei beren eskubideen eta betebeharren berri emateko eta kontsumitzean izan ditzaketen arriskuen gaineko aholkuak emateko. Kontsumoarekin zerikusia duten **gomendioak** igorri ziren Cadena SER, EITB, 40 Principales, Onda Cero eta Onda Vasca dialetan.

### 2.2.2. Kontsumobideren agerpenak komunikabideetan

Guztira, 2015ean, Kontsumobidek komunikabideetarako **3 prentsaurreko** eta **13 prentsa ohar** egin ditu.

2015. urtearen joanean Kontsumobide **91** aldiz agertu da **prentsa idatzian**, **2.001** aldiz **prentsa digitalean**, **3** aldiz **telebistan** eta **1.229 irratian**.



## 2.3. Kontsumobide Sarean

### 2.3.1. www.kontsumobide.eus webgunea

Kontsumobideren webgunea erreferente gisa sendotzen ari da kontsumoari buruzko informazioan, baita Institutuaren jardueren zein dokumentuen hedapenean ere.

2015. urtean **89.199 bisita** egin ziren. Web-orriaren bidez, Kontsumobidek kontsumoaren alorreko kalitatezko informazio eguneratua eta erraz topa daitekeena eskaini nahi du, Institutuaren lan-esparruei dagokienez.

Webgunearen **funtzeko helburua** kontsumitzaileei beren eskubideak erabiltzen eta beren betebeharrak betetzen laguntzea da, eta, horretarako, modu arduratsuan kontsumitzeko informazio praktikoa eskaintzea. Hala ere, kontsumitzaileentzako informazioa eta dokumentazioa eskaintzeaz gain, informazio zehatza ere eskaintzen die beste talde batzuei: kontsumoaren alorrean lan egiten duten enpresei, hezitzaileei eta profesionaleri, hain zuzen.

The screenshot shows the homepage of the Kontsumobide website. At the top right, there is a logo for 'euskadi.eus'. Below it, a navigation bar contains links for 'Hartemenerako', 'Laguntza', 'Mapa', 'Informatioa', and 'Egitza elektronikoa'. A search bar is located on the right side of this bar. Below the navigation bar, there are several main sections: a left sidebar with 'Merkaldia', 'Diru-laguntzak emateko delakida', 'Kontsumobide aldizkaria', and 'Etikogailen etikaketa'; a central banner for 'kontsumoBIDE ALDIZKARIA' with a shopping cart graphic and the text '25.04. USABILA - APILA'; and a right sidebar titled 'BULEGO BIRTUALA' with a list of services. Below these, there are three columns of services: 'INFORMAZIOA EMATEN DUGU', 'PRESTAKUNTZA EMATEN DUGU', and 'LAGUNTZEN DIZUGU'. At the bottom, there are three featured cases: 'Volkswagen kasua', 'Non gauden', and 'Finantza Ekarpenk'. The footer includes 'ALERTA DUTEN PRODUKTUAK' and 'ARBITRAJEA'.

### Kontsumobideren webgunea

## 2.3.2. Bloga eta Sare Sozialak

2015. urtean, euskal biztanleriak sare sozialak gero eta gehiago erabiltzeko joeraz kontziente izanik, bloga sustatzeko eta gizarte-sareetan egoteko lan egiten jarraitu du Kontsumobidek: Facebook, Twitter eta YouTube.

Zentzu honetan **10.298 sarrera blogean** lortu dira, **2.765 “Atsegin du!”** Facebooken eta **1.497 jarraitzaile** Twitterren.

### Kontsumobideren profilak Facebook eta Twitter sare sozialetan



## 2.3.3. Kontsumobide APP

2015. urtean zehar Kontsumobidek **gailu mugikorretarako (telefonoa eta tableta)** aplikazio bat garatu du, Euskadiko kontsumitzaileei **erraz eskura daitekeen informazio erabilgarria** eskaintzeko xedez. Aplikazioa euskaraz eta gaztelaniaz garatu da, eta Android eta IOS sistema eragileekin erabil daiteke.

Aplikazio horrekin, **Euskadiko kontsumitzaileek** modu erraz eta zuzenean **eskratu dezakete informazioa**. Horrela, Kontsumobidek **zabandu ditu orain arte informazioa lortzeko zituen bideak** (webgunea, bloga, sare sozialak eta, horrez gain, aurrez aurreko zein telefono bidezko arreta hiru lurralde-bulegoetan).

## 3. Prestakuntza

**K**ontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak herritarrei zein kontsumoaren arloan lan egiten duten profesionali zuzendutako doako prestakuntza- eta hezkuntza-programak antolatzen ditu.

Loturak:

- ▶ [Kontsumorako prestakuntza, lehenetasuna Kontsumobiderentzat](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza](#)
- ▶ [Norentzat da prestakuntza-eskaintza?](#)

Herritarrak kontsumoaren alorrean prestatu eta hezteko, Kontsumobidek hiru programa ditu, batez ere: **Kontsumobideren prestakuntza-zentroak, Kontsumoko prestakuntza ikastetxeetan eta Kontsumoko prestakuntza adinekoentzat**. 2015. urtean, **guztira 3** programa horietan, **4.905 prestakuntza-jarduera egin dira eta horiek 83.552 partaidetza izan dituzte**.

**Kontsumoaren alorreko profesionali zuzendutako prestakuntzari** dagokionez, urtean zehar prestakuntza-programa bat jarraitu da. 2015ean, **135 lagunek hartu dute parte**.

### 3.1. Kontsumorako prestakuntza Kontsumobideko zentroetan

Kontsumobidek kontsumoari buruzko prestakuntza-zentro bat du lurralde historiko bakoitzean.

Loturak:

- ▶ [Kontsumobideren prestakuntza zentroak](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza: Prestakuntza Kontsumobideko zentroetan](#)

2015. urtearen joanean, **2.049 prestakuntza-jarduera eman dira Kontsumobideren prestakuntza-zentroetan, 5 jardunaldi teoriko-praktiko hezitzaileentzat eta 33 prestakuntza erakunde publikoetan**: 829 Bilbon, 841 Gasteizen eta 417 Donostian. Guztira, 172 taldek hartu dute parte.

Kontsumobideren prestakuntza-zentroetan antolatu diren prestakuntza-jardueretan, guztira, **25.464 lagunek hartu dute parte**.

Honako hauek izan dira tailerrak garatzeko eskaera gehien izan duten arloak: elikadura eta jasangarritasuna.

## Prestakuntza-jarduerak Kontsumobideko prestakuntza zentroetan (2015)

JARDUERA MOTA

JARDUERA KOPURUA

### Tailer espezifikoak

Publizitate arloa	158
Etiketen arloa	78
Erosketa eta zerbitzuen arloa	202
Iraunkortasun arloa	368
Kontsumitzaileen eskubideen arloa	47
Segurtasun arloa	131
Teknologia berrien arloa	117
Finantza-zerbitzuen arloa	52
Elikadura arloa	355

Tailer espezifikoak guztira **1.508**

### Tailerrak (beste formatuak)

Hezkuntza-premia bereziei egokitutako tailerrak	149
Eskolako 21 Agenda	63
Begirunez kontsumitu	55
Herritartasunerako hezkuntza	42
Prestakuntza-paketeak	16
Kontsumoari buruzko maratoiak	117
Kontsumobide Jolasean (Pazko astea eta Uda)	99

Tailerrak (beste formatuak) guztira **541**

### TAILERRAK GUZTIAK

**2.049**

### Gainontzeko prestakuntza-jarduerak

Jardunaldiak gurasoentzat	4
Jardunaldiak hezitzaileentzat	1
Erakunde-jardunaldiak	33

Gainontzeko prestakuntza-jarduerak guztira **38**

JARDUERAK GUZTIRA **2.087**



Kontsumobideko Prestakuntza-zentroak eskatu daitezkeen ikasmaterialak dituzte: Materialak ingelesez (webgunean ere badaude), gelan lantzeko ikasmaterialak, Elkartentzako Maleta, mediateka eta expomEDIATEKA materialak.

Guztira, 2015. urtean **39 material maileguan utzi dira**.

## 3.2. Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan

**Lehen Hezkuntzako** ikastetxeei eta **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloari** zuzenduta dago programa hau.

Ikastetxea osatzen duten 3 kolektiboetara zuzendutako jarduerak dira: **ikasleak**, **gurasoak** eta **irakasleak**.

► Lotura: [Prestakuntza-eskaintza: Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan](#)



Ikastetxez ikastetxeko programa horren baitan, kontsumoari buruzko **2.696 tailer** egin dira: **2.621 tailer ikasleentzat** (2.231 Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta 390 DBHko lehen zikloan) eta **75 gurasoentzat**.

Tailer horiek EAEko 137 ikastetxetan eman dira, eta, guztira, **54.074 ikaslek** zein haien irakaslek eta **989 gurasok hartu dute parte**.

### Ikastetxeetan ikasleei emandako tailer kopurua (2015)

gai arloen eta ikasketa mailen arabera

GAI ARLOAK	LEHEN HEZKUNTZA	2. HEZKUNTZA (1. ZIKLOA)	GUZTIRA
Eskubideak eta betebeharrak	82	10	92
Elikadura	859	105	964
Kontsumo jasagarria	523	68	591
Aisia, jokoak eta jostailuak	247	34	281
Publizitatea	153	31	184
Segurtasuna	41	7	48
Erosketarako irizpideak eta etiketak	151	54	205
Teknologia berriak	175	81	256
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.231</b>	<b>390</b>	<b>2.621</b>

### Gurasoentzako 8 jarduera eskaini dira:

- ▶ Hitzaldi bat haien ikastetxean programaren esperientziari buruz.
- ▶ 'Elikadura ere bada hezkuntza' tailerra.
- ▶ 'Publizitatea: babesik onena heztea' tailerra.
- ▶ 'Bideojokoak, badakigu zertan jolasten dugun?' tailerra.
- ▶ 'Adingabeak eta Internet zerbitzua' tailerra.
- ▶ 'Adingabeak eta sakeleko telefonoak' tailerra.
- ▶ 'Jostailu egokia aukeratzea' tailerra.
- ▶ 'Etxeko ekonomia' tailerra.

**Irakasleentzako** kontsumoaren alorreko orientazio pedagogikorako zerbitzua eta ikasmaterial osagarri bidezko laguntza eskaini da, gelan lan egiteko (web quest eta dossier pedagogikoak).

### Consumópolis:

Kontsumo arduratsuari buruzko eskola-lehiaketa bat da, eta Lehen Hezkuntzako 3. Zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. AECOSANek antolatzen du, Kontsumobiderek in eta gainerako autonomia-erkidegoekin batera.

- ▶ Lotura: [Consumópolis. Lehiaketa kontsumo arduratsuari buruz.](#)

Lehiaketaren 10. edizioan (**Consumópolis10. "Zure kontsumoak badu historia: 10 urtez, Consumópolisen; 30 urtez, kontsumoa lantzen". 2014-2015 ikasturtea**), EAERI dagokionez, **65 eskola-talde** hartu dute parte. Fase autonomikoaren irabazleak honako hauek izan dira:

- ▶ Lehen Hezkuntzako 3. zikloa: Floreaga Ikastetxea (Azpeitia)
- ▶ Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa: Madre de Dios Ikastetxea (Bilbo)
- ▶ Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa: Madre de Dios Ikastetxea (Bilbo)

2015. urteko azken hiruhilekoan, lehiaketaren 11. edizioaren lehiaketaren lehen zatia gauzatu da (**Consumópolis11. "Zuk kontsumitzen duzu: berdin egiten dute leku guztietan?. 2015-2016 ikasturtea**).

### 3.3. Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan


Aurreko urteetan bezala, 2015ean ere, bereziki hirugarren adinekoen zentroei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egin dira.

- ▶ Lotura: [Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan](#)

Programan **3.025 lagunek** hartu dute parte (2.356 emakume eta 669 gizon), **62 taldeetan** banatuta. Guztira, **58 hitzaldi** eta **64 tailer** praktiko garatu dira. Gehien eskatu den gaia “Medikazioa eta automedikazioa” izan da, jarraian “Elikadura eta nutrizioa” eta “Adinekoen segurtasuna” gaiak aurkitzen direlarik.

Horrez gain, guztira, **28 bisita** egin dira kontsumoari buruzko produkzio-, zerbitzu- zein prestakuntza-zentroetara. 2015. urtean, adineko zentroentzako prestakuntza-programan parte hartu dutenek ekoizpen-zentro eta erakunde hauetan izan dira bisitan: Cafés la Brasileña, Vicrila, Nestle, El Correo, Torremadariaga, Cementos Rezola Museoa, EITB (Bilbo), Kontsumobideko Prestakuntza Zentroa, Hazi eta Cristina Enea Fundazioa.

#### Gaiak



■ Medikazioa eta automedikazioa

■ Elikadura eta nutrizioa

■ Adinekoen segurtasuna

■ Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak

■ Elektrizitatea eta gasa

■ Kontsumo iraunkorra

■ Merkataritza-establezimendutik kanpoko salmentak eta mirari-produktuak

■ Banku-zerbitzuak

■ Elikagaiak, bertakoak eta sasoikoak

■ Bidaiariaren eskubideak

■ Elikagaien segurtasuna

■ Produktuen bermea eta Laguntza Teknikoko Zerbitzuak

■ Erosketa arduratsua

■ Produktuen etiketak

■ Telefono eta Internet zerbitzuak

■ Aseguruak

## 3.4. Kontsumo-arloko profesionalentzako prestakuntza

Kontsumobidek kontsumo-arloko profesionaleri eta eragile ekonomikoei zuzenduriko **ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak programatzen eta antolatzen** ditu.

- ▶ Enlace: [Kontsumo-arloko profesionaletzako prestakuntza](#)

2015. urtean, kontsumoaren alorreko profesionalentzako **2 ikastaro eta jardunaldi bat** antolatu eta eman dira:

### Informazio eta formazio jardunaldia: 'Lehiaren Euskal Agintaritza'

**4 orduko** iraupena duen jardunaldia. **Kontsumo alorreko 47 profesionalak** parte hartu zuten. Bilboko Burtsako lokaletan ospatu zen (2015eko apirilak 26).

### Ikastaroa: 'Kontsumitzaileen babesa finantza-arloan'

**16 orduko** iraupena duen jardunaldia, AECOSAN-en laguntzarekin antolatuta. **Kontsumo alorreko 32 profesionalak** parte hartu zuten Kontsumobidek Vitoria-Gasteizen duen prestakuntza-zentroan (2015eko urriak 6, 7 eta 14).

### Ikastaroa: 'Kontsumitzaileak txikizkako saltokien aurrean. Merkataritza-establezimenduetatik kanpoko urrutiko salmenta. Merkataritza Elektronikoa'

**10 orduko** iraupena duen jardunaldia, AECOSAN-en laguntzarekin antolatuta. **Kontsumo alorreko 56 profesionalak** parte hartu zuten. Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen Ekitaldi Aretoan ospatu zen (2015eko abenduak 2 eta 3).

## 4. Gatazkak konpontzea

**H**erriarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea da Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuaren lehentasuna, baita haiei beharrezko baliabide guztiak eskaintzea ere, herritarrek kontsumoaren alorrean dituzten eskubideak eta hartu behar dituzten arreta-neurriak zein diren jakin dezaten.

### 4.1. Kontsumoko kontsultak Euskadin

2015. urtearen joanean, **kontsumoari buruzko 41.548 kontsulta erantzun ditu guztira, Euskadin**. Haietatik, **8.899 kontsulta zuzenean Kontsumobidera bideratu dira**, eta bide hauek erabili dira kontsulta horietarako: aurrez aurre, telefonoa (bai jendearen arretarako lurralde-zerbitzuetako telefonoen bidez) eta online.

Era berean, beste hainbat kontsumo-erakundek ere jaso dituzte kontsumitzaileen kontsultak; esaterako, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-bulegoek (KIUB) eta kontsumitzaileen elkarteek. Hain zuzen ere, **2015ean, KIUBek 27.758 kontsultari erantzun diete**, eta **kontsumitzaileen elkarteek, 4.891 kontsultari**.

- ▶ Lotura: [Kontsumo-arloko kontsultak, nola egin...](#)





Taula honetan, erakundeek jaso dituzten **kontsultei** buruzko datuak ikus daitezke, **sektorearen** eta **erakundearen** arabera bereizita:

## Kontsumoko kontsultak Euskadin (2015)

sektore eta erakundearen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE	KIUB	KE	GUZTIRA	%
Elikadura	24	97	7	128	%0,30
Etxeko-tresna elektrikoak	603	1.333	117	2.053	%4,94
Jostailuak	10	16	0	26	%0,06
Material elektrikoak	9	27	1	37	%0,09
Altzariak	136	371	49	556	%1,33
Kosmetikoak, drogeria, lurringarriak...	1	11	2	14	%0,03
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	290	474	53	817	%1,96
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	43	154	12	209	%0,50
Ibilgailuak	191	652	88	931	%2,24
Askotariko produktuak	242	395	26	663	%1,59
Konponketa-zerbitzuak	201	519	88	808	%1,94
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	955	3.092	369	4.416	%10,62
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	494	1.531	1.147	3.172	%7,63
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	89	367	102	558	%1,34
Ibilgailuen konponketa	464	985	200	1.649	%3,97
Bidaiak	195	582	116	893	%2,15
Garraioak	359	949	207	1.515	%3,64
Telekomunikazioak	2.609	7.737	863	11.209	%26,98
Banku-zerbitzuak	367	1.570	520	2.457	%5,91
Osasun eta laguntza zerbitzuak	79	257	46	382	%0,92
Tindategiak eta garbitegiak	44	84	10	138	%0,33
Aseguruak	408	1.838	342	2.588	%6,22
Gasolina eta zerbitzuguneak	3	12	1	16	%0,03
Askotariko zerbitzuak	1.083	4.705	525	6.313	%15,19
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.899</b>	<b>27.758</b>	<b>4.891</b>	<b>41.548</b>	<b>%100</b>

## 4.2. Kontsumoko erreklamazioak Euskadin


2015ean, **Euskadin, 21.221 erreklamazio izapidetu ziren** kontsumo-bulegoen bidez: **8.090 Kontsumobideren bidez, 12.057 Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoen (KIUB) bidez** eta **1.074 kontsumitzaile-elkarteen bidez**.

Kontsumo-erakundeek izapidetutako erreklamazioak aztertu ondoren, agerian geratu da sektore berberak direla erreklamatuena; horien guztien artean, **telekomunikazioen sektorea da erreklamazio gehien jaso dituen**, erreklamazioen %37,28, hain zuzen ere. Energia-zerbitzuak bigarren tokian ageri dira (%10,31), eta atzetik, etxeko-tresna elektrikoak (%6,86) eta garraioak (%5,36). Hain zuzen, lau sektore horiek erreklamazio guztien erdia baino gehiago bildu dituzte (%59,81).

- ▶ Lotura: [Kontsumoko erreklamazioak nola egin](#)
- ▶ Lotura: [Kontsumo-arloko gatazkak konpontzea. Izapideak](#)

### Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2015)

erakundeen arabera



## Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2015)

sektore eta erakundeen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE		KIUB		KE	
Elikadura	32	%0,40	41	%0,34	0	%0
Etxeko-tresna elektrikoak	414	%5,11	1.009	%8,37	32	%3,00
Jostailuak	29	%0,36	14	%0,12	0	%0
Material elektrikoak	7	%0,08	11	%0,10	0	%0
Altzariak	110	%1,36	170	%1,41	15	%1,40
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	10	%0,12	8	%0,06	0	%0
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	264	%3,26	148	%1,23	2	%0,18
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	189	%2,33	106	%0,88	2	%0,18
Ibilgailuak	152	%1,90	110	%0,91	14	%1,30
Askotariko produktuak	125	%1,54	134	%1,11	4	%0,38
Konponketa-zerbitzuak	207	%2,55	258	%2,14	12	%1,11
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	578	%7,14	1.520	%12,60	89	%8,30
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	105	%1,29	147	%1,22	71	%6,61
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	64	%0,80	106	%0,88	15	%1,40
Ibilgailuen konponketa	364	%4,50	293	%2,43	25	%2,32
Bidaiak	126	%1,55	325	%2,70	37	%3,44
Garraioak	475	%5,87	549	%4,55	114	%10,61
<b>Telekomunikazioak</b>	<b>2.527</b>	<b>%31,23</b>	<b>5.024</b>	<b>%41,67</b>	<b>361</b>	<b>%33,61</b>
Banku-zerbitzuak	346	%4,27	396	%3,28	102	%9,50
Osasun eta laguntza zerbitzuak	69	%0,85	66	%0,54	10	%0,93
Tindategiak eta garbitegiak	82	%1,01	48	%0,40	0	%0
Aseguruak	60	%0,74	425	%3,51	81	%7,54
Gasolina eta zerbitzuguneak	30	%0,37	9	%0,07	0	%0
Askotariko zerbitzuak	1.720	%21,26	1.144	%9,49	88	%8,20
Beste batzuk	5	%0,06	0	%0	0	%0
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.090</b>	<b>%100</b>	<b>12.057</b>	<b>%100</b>	<b>1.074</b>	<b>%100</b>

## Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2015)

sektore eta lurralde historikoen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ONLINE		GUZTIRA	
Elikadura	14	%0,42	38	%0,23	19	%0,33	2	%1,61	73	%0,34
Etxeko-tresna elektrikoak	208	%6,27	1.031	%6,51	211	%3,67	5	%4,03	1.455	%6,86
Jostailuak	24	%0,72	11	%0,05	8	%0,14	0	%0	43	%0,20
Material elektrikoak	4	%0,12	6	%0,10	8	%0,14	0	%0	18	%0,08
Altzariak	46	%1,39	184	%0,98	64	%1,11	1	%0,81	295	%1,39
Kosmetikoak, drogeria, lurringarriak...	5	%0,15	8	%0,10	5	%0,09	0	%0	18	%0,08
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	132	%3,98	219	%1,47	60	%1,04	3	%2,42	414	%1,95
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	49	%1,48	127	%1,13	118	%2,05	3	%2,42	297	%1,40
Ibilgailuak	40	%1,21	185	%0,73	50	%0,87	1	%0,81	276	%1,30
Askotariko produktuak	62	%1,87	139	%0,91	60	%1,04	2	%1,61	263	%1,24
Konponketa-zerbitzuak	97	%2,93	272	%1,63	97	%1,69	7	%5,65	473	%2,23
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	256	%7,72	1.184	%9,10	744	%12,95	3	%2,42	2.187	%10,31
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	71	%2,14	146	%0,94	104	%1,81	2	%1,61	323	%1,52
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	29	%0,87	95	%0,57	60	%1,04	1	%0,81	185	%0,87
Ibilgailuen konponketa	134	%4,04	378	%2,87	162	%2,82	8	%6,45	682	%3,21
Bidaiak	114	%3,44	278	%1,80	89	%1,55	7	%5,65	488	%2,30
Garraioak	139	%4,19	700	%6,01	292	%5,08	7	%5,65	1.138	%5,36
<b>Telekomunikazioak</b>	<b>1.125</b>	<b>%33,93</b>	<b>4.317</b>	<b>%38,02</b>	<b>2.418</b>	<b>%42,08</b>	<b>52</b>	<b>%41,94</b>	<b>7.912</b>	<b>%37,28</b>
Banku-zerbitzuak	141	%4,25	464	%5,05	236	%4,11	3	%2,42	844	%3,98
Osasun eta laguntza zerbitzuak	44	%1,33	60	%0,85	41	%0,71	0	%0	145	%0,68
Tindategiak eta garbitegiak	38	%1,15	72	%0,73	20	%0,35	0	%0	130	%0,61
Aseguruak	107	%3,23	311	%3,00	146	%2,54	2	%1,61	566	%2,67
Gasolina eta zerbitzuguneak	2	%0,06	30	%0,33	7	%0,12	0	%0	39	%0,18
Askotariko zerbitzuak	434	%13,09	1.778	%16,76	726	%12,63	14	%11,29	2.952	%13,91
Beste batzuk	1	%0,03	2	%0,11	1	%0,02	1	%0,81	5	%0,02
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.316</b>	<b>%100</b>	<b>12.035</b>	<b>%100</b>	<b>5.746</b>	<b>%100</b>	<b>124</b>	<b>%100</b>	<b>21.221</b>	<b>%100</b>

## 4.2.1. Kontsumobide

2015. urtearen joanean, Kontsumobidek **8.090 erreklamazio jaso zituen** aurrez aurre (hiru lurralde-zerbitzuen bidez: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) zein telematikoki. Honako hau da bulegoetan egindako erreklamazioen lurraldekako banaketa: 1.596 Arabako Kontsumobideko bulegoan izapidetu ziren, 4.133 Bizkaikoan eta 2.237 Gipuzkoakoan. **Online** ere **124 erreklamazio** jaso ziren.

2015ean Kontsumobiden jasotako erreklamazio guztiak kontuan hartuta, hauek dira nabarmentzeko moduko datuak, besteak beste:

- ▶ **Bereziki bultzatu da Kontsumobideren bitartekotza-lana** 2015. urtean: **5.274 kasutan bideratu zen modu horretan, eta haietatik, 2.233 kasutan lortu zen adostasun-motaren bat** (erabatekoa edo partziala).
- ▶ **531 erreklamazio beste erakunde batzuetara** bideratu ziren, haiek ebatz zitzaten, Kontsumobideren eskumenekoak ez ziren gaiei buruzkoak baitziren.
- ▶ **244 erreklamazio Arbitraje Batzordera bideratu ziren.**
- ▶ Kontsumobidek **233 erreklamaziozehapen-espedientekoproposamenarekin itxi zituen**, salatutako enpresentzat.



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



## Kontsumobiden aurkeztutako erreklamazioak (2015)

sektore eta lurralde historikoen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ONLINE	GUZTIRA	%
Elikadura	8	13	9	2	32	%0,40
Etxeko-tresna elektrikoak	103	222	84	5	414	%5,12
Jostailuak	21	5	3	0	29	%0,36
Material elektrikoak	3	0	4	0	7	%0,09
Altzariak	28	56	25	1	110	%1,36
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	4	5	1	0	10	%0,12
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	106	119	36	3	264	%3,26
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	28	79	79	3	189	%2,34
Ibilgailuak	28	82	41	1	152	%1,88
Askotariko produktuak	36	56	31	2	125	%1,55
Konponketa-zerbitzuak	23	146	31	7	207	%2,56
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	124	229	222	3	578	%7,14
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	14	59	30	2	105	%1,30
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	8	33	22	1	64	%0,79
Ibilgailuen konponketa	71	191	94	8	364	%4,50
Bidaiak	30	64	25	7	126	%1,56
Garraioak	51	266	151	7	475	%5,87
<b>Telekomunikazioak</b>						
Alderdi orokorrak	200	134	22	5	361	%4,46
Telefonia finkoa	78	141	152	18	389	%4,81
Telefonia mugikorra	205	685	477	25	1.392	%17,21
Internet	110	144	127	4	385	%4,76
Banku-zerbitzuak	37	208	98	3	346	%4,28
Osasun eta laguntza zerbitzuak	16	32	21	0	69	%0,85
Tindategiak eta garbitegiak	28	41	13	0	82	%1,01
Aseguruak	9	27	22	2	60	%0,74
Gasolina eta zerbitzuguneak	0	23	7	0	30	%0,37
Askotariko zerbitzuak	226	1.071	409	14	1.720	%21,26
Beste batzuk	1	2	1	1	5	%0,06
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.596</b>	<b>4.133</b>	<b>2.237</b>	<b>124</b>	<b>8.090</b>	<b>%100</b>

**Sektoreei dagokienez**, azken urteetako sektore berdinak izan dira, oraingoan ere, **errekamazio gehien izan dituztenak**. Zerrendan lehen bi postuetan hauek daude: **telefonía-zerbitzuak** eta **energia-zerbitzuak**.

### Errekamazioen zergatiak

Taula honetan, errekamazio gehien izan dituzten hiru sektoreetan kontsumitzaileek eman dituzten **arrazoiak** zehazten dira:

